

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eguneko ospitale bat sortu du buruko eritasuna duten 65 urtetik gorako gaixoentzat

20 pertsonarentzako lekuarekin, egun San Francisco Javier Psikogeriatriako eguneko zentroa dagoen instalazioetan kokatuko da

Viernes, 16 de noviembre de 2012

Nafarroako Gobernuak Buru Osasuneko Eguneko Psikogeriatria Ospitalea sortzea onartu du, buruko eritasuna duten 65 urtetik gorako pertsonentzat berriazko baliabidea eta espezializatua. Tarteko laguntza-maila izango da buruko osasuneko eta ospitaleratze psikiatrikoko unitateen artean. Zerbitzu horren helburua ospitaleko diru-sarrerak murriztea eta talde horri emandako arreta hobetzea da.

2011n buruko osasuneko sareak arreta emandako pertsonen % 17,6k 65 urte baino gehiago zuen (2.839 gaixo). Eguneko Ospitalean buruko osasuneko sarearen lehen baliabide espezializatua da adin-talde horretako buruko nahastei arreta emateko, Osasuneko kontseilari Marta Verak eta Buruko Osasuneko zuzendari Víctor Peraltak prentsaurrekoan azaldu dutenez.

Eguneko ospitalea Iruñean kokatuko da, egun San Francisco Javier Psikogeriatriako eguneko zentroa dagoen instalazioetan.

Egun dituen 20 plazei eutsiko die, baina bertako erabiltzaileen profila aldatuko du; izan ere, egungo baliabidea narriadura kognitiboa duten pertsonentzat diseinatuta dago, buruko osasuneko berriazko tratamendurik eskatzen ez dutenak eta Gizarte Politiken Departamentuaren bidez sartzen direnak.

Azken hilabeteotan erabiltzaile horiek bideratu izan dira, eskatzen diren zaintza-mailan egokiagoak diren gizarte nahiz osasun arloetako beste baliabide batzuetara (lagundutako egoitzak gehienbat); hala, abenduan buruko eritasuna duten gaixoak hartzen hasiko dira, gehienak buruko nahaste larriak dituzten profilekoak. Eguneko ospitale berriak urtean 150 edo 200 pertsonari arreta ematea aurreikusten da, 08:00etatik 15:00etara, ospitaleratze partzialaren erregimenean.

Zehazki, Buruko Osasuneko Eguneko Ospitale Psikogeriatriko berriak Foru Komunitatean 65 urtetik gorako herritarrei arreta ematen dien buruko osasuneko hamar zentrotan laguntza eskainiko du; ebaluazio eta tratamenduko programak garatuko ditu denbora mugatu baterako; eta gaixo akutu edo azpiakutuei arreta emango die ospitaleratze psikiatrikoko unitateetan erabateko ospitaleratzearen alternatiba moduan, edo hura mozteko behin gertatu ondoren. Psiko-hezkuntzako programak ere egingo ditu eta familiarrei nahiz zaindzaileei laguntza emateko programak ere.

Gainera, eguneko ospitale hori Nafarroako Osasun Zerbitzuaren buruko osasun-sareko erreferentzi bihurtuko da buruko eritasuna duten 65 urtetik gorako pertsonen arreta emateko. Xede horretarako, zeharkako psikogeriatría-programa koordinatuko du buruko osasun-sare guztirako. Arloko ikerketa eta irakaskuntzan ere erreferente izango da.

Egitura eta langileak

Eguneko psikogeriatría-zentroak bi laguntza-programa eskaintzen ditu gaur egun: batetik, gizarte eta osasuneko ezaugarriak dituen eta iraupen luzeko arretako eguneko zentroa, narriadura kognitiboa duten gaixoenzat dena bereziki; bestetik, "oroimenaren unitatea" aldi berean bi azpi-programaz osatuta dagoena: ebaluazio kognitiboaren programa eta estimulazio kognitiboa duen terapiako programa demenziaren hasierako faseak aurkezten dituzten pertsonentzat, aurrera egin ez dezan eta sintomak arintzeko.

Eguneko ospitaleak estimulazio kognitiboko terapia-programa eskaintzen jarraituko du, demenzia izan dezaketen gaixoen ebaluazio kognitiboaren programa Nafarroako Ospitale Gunean egingo da Neurologia Zerbitzuan ezartzea aurreikusten den demenziaren arreta integraleko programa berri baten barnean.

Gobernuak Buruko Osasuneko Eguneko Psikogeriatría Zentro berria sortzeko onartu duen foru-dekretuak bere zerbitzu nahiz egituraren eskaintza mugatzen du. Eguneko Ospitalea Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Buruko Osasuneko Zuzendaritzako Tarteko Baliabideen arloari atxikita egongo da. Zuzendaria eta atxikitako honako lanpostu hauek izango ditu: psikiatriako bat, psikologia klinikoko hiru, erizaintzako bi, hiru terapeuta okupazionalakoak, erizaintza-laguntzaileen bost lanpostu, administrari laguntzaile bat eta zeladore bat.

Psikogeriatría arretako berrantolaketa hori [2012-2016 Buruko Osasun Plan](#)ean jasota dago. Dokumentu horrek buruko nahasteak dituzten pertsonen laguntza-prozesua hobetzeko oinarriak finkatzen ditu, laguntzaren espezializazio-estrategiekin garrantzi handieneko prozesu klinikoetan, haien artean, psikogeriatría eta buruko eritasun larriak.